

4.- ABIAZIO ZIBILAREN ARLOKO ARAUDIA

Lurralde-plan Partzialaren Aldaketa aplikatu eta garatzeko tresnek indarreko legerian eta araudi sektorialean ezarritakoa errespetatu beharko dute.

1.- Abiazio zibilaren alorrean, sektoreko organo eskudunak espresuki eskatuta, hau da aplikatu beharreko araudia:


- a) Balmaseda eta Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalari eragiten dioten Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoko gune mugatzaileek ezartzen dute eraikinek (eta haien elementu guztiek, hala nola, antenek, tximistorratzek, tximiniek, aire girotuko ekipoek, igogailuen kaxek, kartekek, apaindurek, etab.), lurrazalaren eraldaketek edo objektu finkoek (zutoinek, antenek, aerosorgailuek eta horien palek, kartekek, etab.) itsasoaren mailaren gainean gehienez ere izan dezaketen altuera, bai eta errepideen eta burdinbideen galiboa ere, salbu eta Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziaren (AESa) iritziz segurtasuna arriskuan ipintzen ez bada edo aireontzien operazioen erregularotasunari eragiten ez bazaio, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuan, zortasun aeronautikoei buruzkoa, jasotako salbuespenen arabera.
- b) Aerosorgailuen instalazioari dagokionez, haien altuera dela-eta (palak ere kontuan hartu behar dira altuera hori kalkulatzekoan) bermatu behar da ez dutela hausten Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoari buruzko araudia. Gauza bera aplikatu behar da energia elektrikoa garraiatzeko lerroetarako, telekomunikazioen azpiegiturarako (telefono-antenak eta mikrouhin-loturak, kasurako), eta funtzionamenduagatik plataforma jasoetan kokatu behar diren beste egitura guztietarako. Hori guztia dela-eta, debekatu egiten da instalazio horiek eraikitzea, Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESa) alde zuzenetik aurretik baimena espresuki eman ez badu.
- c) Apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuaren, zortasun aeronautikoei buruzkoa, 10. Artikuluaren arabera, egungo idazkeran, hainbat jardura mugatzen dituen zortasun-eremu batean geratzen da Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoen lurrazalaren gaineko proiektzio ortogonalean dagoen azalera. Horren babespean, Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESa) jarduerak debekatu, mugatu edo baldintzatu ahal izango ditu, aireko operazioentzako edo instalazio erradioelektrikoen funtzionamendu egokirako arriskutsuak badira. Aukera hori izango du ere jardura horiek ezarri edo egiteko aukera ematen duten lurzoruaren erabilerei dagokienez, besteak beste:
 - 1) Turbulentziak eragin ditzaketen oztopoak eraikitzea dakarten edo eragiten duten jarduerak.
 - 2) Argien erabilera (proiektoreak eta laser-igorgailuak barne), arriskuak sor baditzakete eta nahasketak edo errakuntzak eragin baditzakete.
 - 3) Azalera handi eta oso islatzaileak behar dituzten jarduerak, itsualdiak eragin baditzakete.

- 4) Aerodromoaren mugimendu-eremuko faunaren ekintzak areagotu ditzaketen jarduerak.
 - 5) Edozein jarduera, erradiazio-iturri ikusezinak ezartzea eragiten badu edo komunikazio, nabigazio eta zaintza aeronautikoko sistemen funtzionamenduan interferentziak sor ditzaketen edo horien gaineko eragin negatiboa izan dezaketen objektu finko edo mugikorren presentzia badakar.
 - 6) Kea, lainoa edo aireontzientzako arriskutsua den beste edozer fenomeno sortzen duten instalazioak ezartzea edo martxan jartzea dakarten edo eragiten duten jarduerak.
 - 7) Aireratzeko edo airean egoteko bitartekoak erabiltzea, kirol-jarduerak edo beste edozein motakoak egiteko.
- d) Kontraesana badago lurraldeko antolamendu-arauetan, edo antolamendu-arauen eta lurralde-planean jasotako planoen artean, zortasun aeronautikoek ezarritako mugek edo baldintzek lehentasuna izango dute plangintzan jasotako beste edozein neurriren aurretik.
 - e) Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalerako ezarritako lurralde-antolamendua garatzeko egiten diren hirigintza- edo lurralde-planen eta horien aldaketa edo berrikuspenen berri eman beharko zaio Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoei eragiten dieten alorrei dagokienez, Interes Orokorreko Aireportuen eta zerbitzu-eremuen Antolamenduari buruzko eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez. Horretarako, txostena eskatuko da plangintzaren edo izapide baliokidearen lehen onarpena egin baino lehen.
 - f) Salbuespen bezala, onartu ahal izango dira Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoak errespetatzen ez dituzten jarduerak dituzten antolamendu-planak eta -tresnak, baldin eta AESAren iritziz (aireportuko kudeatzailearen edo aireko nabigazioaren zerbitzu-hornitzailearen aurreko txostenarekin) aireontzien segurtasuna eta operazioen erregularitasuna arriskuan jartzen ez badira, zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 29.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, egungo idazkeran. Kasu honetan, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari egindako txostenaren eskariarekin batera, azterlan aeronautikoa ere aurkeztu ahal izango da.
 - g) Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalerako ezarritako lurralde-antolamendua garatzeko egiten diren plangintza-tresna guztiek beren araudietan jaso beharko dituzte arestian aipatutako xedapen guztiak (beharrezkoak izango dira aireportu-gaietan Estatuko araudiaren lehentasuna egiaztatzeko) eta, bereziki, Bilboko aireportuaren Gidaplanaren xedapenak.
 - h) Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoaren eraginpeko eremu eta espazioetan, zeinahi eraikuntzaren, instalazioren (zutoinak, antenak, aerosorgailuak –palak barne–, eraikuntzarako behar diren bitartekoak –eraikuntzarako garabiak eta antzekoak barne–) edo landaketaren gauzatzeak Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) alde aurreko aldeko

akordioa beharko du, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.


- i) Salbuespen bezala, 584/1972 Dekretuko 33. artikuluan egun duen idazkeraren arabera, baimendu ahal izango dira zortasun aeronautikoentzat ezarrita dauden mugak gainditzen dituzten eraikinak edo instalazioak, betiere egiaztatuta geratzen bada, AESAren aburuz, segurtasuna arriskuan jartzen ez dela, aireontzien operazioen erregularitasunari eragiten ez zaiola edo jarduera apantailamendu bat dela. Ondorio horietarako, jarduketa berrien sustatzaileek azterlan aeronautikoa aurkezteko aukera izango dute.
- j) Zortasun aeronautikoetan ez dauden eremuetan, lurrazalaren edo ur jurisdikzionalen itsas mailaren gainetik 100 metro edo gehiago altxatzen diren eraikinak edo egiturak eraikitze (posteak, antenak, aerosorgailuak -palak barne-, etab.) eta horiek eraikitze beharrezko bitartekoak instalatzeko (eraikuntza-garabiak eta antzekoak barne) beharrezkoa izango da Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESA) iritzia ematea, aireko operazioen segurtasunean duen eraginari dagokionez, zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 8. artikulua egun duen idazkeran xedatzen duena betez.
- k) Baldin eta zortasun aeronautikoak direla-eta Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalean aurreikusita dauden edo onar litezkeen eraikuntzak edo instalazioak gauzatu ezin badira, ez da kalte-ordainak pagatzeko inongo obligaziorik sortuko, ez Sustapen Ministerioarentzat, ez aireportuaren kudeatzailearentzat ez aireko nabigazioko zerbitzu-hornitzailearentzat ere.

2.- Dokumentazio grafiko bezala, Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoen planoak jasotzen da jarraian. Arau-izaera du:



VISTA GENERAL

E 1:300.000



LEYENDA DE SERVIDUMBRES AERONÁUTICAS

- SUPERFICIES DE LIMITACIÓN DE ALTURAS DE LAS SERVIDUMBRES DE OPERACIÓN DE LAS AERONAVES
- ENVOLVENTE DE LAS SERVIDUMBRES DE OPERACIÓN DE LAS AERONAVES
- CURVA DE NIVEL Y COTA DEL TERRENO
- LÍMITE DE TÉRMINOS MUNICIPALES
- ÁMBITO DE ESTUDIO
- TÉRMINOS MUNICIPALES DE LANESTOSA, VALLE DE CARRANZA, TRUCIOS-TURTZIOZ, ARTZENTALES, SOPUERTA, GALDAMES, GÜENES, GORDEXOLA, BALMASEDA Y ZALLA

 GOBIERNO DE ESPAÑA	MINISTERIO DE FOMENTO	SECRETARÍA GENERAL DE TRANSPORTE			
		DIRECCIÓN GENERAL DE AVIACIÓN CIVIL			
		SUBDIRECCIÓN GENERAL DE AEROPUERTOS Y NAVEGACIÓN AÉREA			
		AEROPUERTO DE BILBAO			
		SERVIDUMBRES AERONÁUTICAS			
		SERVIDUMBRES DE OPERACIÓN DE LAS AERONAVES			
		REAL DECRETO 370/2011			
		ESCALA	FECHA	EXP.	PLANO
		1:60.000	MAYO 2016	160157	1

5.- AZTERLAN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA ETA EXEKUZIO PROGRAMA.

Azalpen-aldean adierazi den bezala, LPPren aldaketa honetan, gomendiozko hainbat arau-xedapen daude jasota. Paisaiaren kalitatearekin loturiko zenbait helburu daude; helburu horiek izango dira hirigintza-plangintzaren eta sektoreko lurraldearen printzipioaren oinarriak, baita Paisaiaren Ekintza Planak egitea gomendatzen den paisaiaren interesen eremuak ere.

Beraz, espedientearen edukia aintzat hartuta adierazi behar da Lurralde Planaren aldaketa honetarako ez dagokiola azterketa ekonomikoa eta finantzarioa egitea, ezta jarduketa programa egitea ere. Horretarako, kontuan hartuko da zehaztapen hori gomendioa baino ez dela, eta, horrenbestez, ez dakarrela zehaztuta inbertsiorik edota denborazko programarik.